

**IRURAKO TRINKETEA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO
ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-
KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA EDO PLEGUA**

1. ART.- KONTRATUAREN XEDEA

Irurako Udalaren jabetzakoa da honako higiezin hau: *.Trinketea, zillar kalea 3. IRURA*

Agiri honen xedea da, aurrez deskribatutako Trinkete eraikinean -taberna- jabariko emakida esleitzea, lokal hori taberna moduan ustiatzeko, kudeatzeko eta instalakuntzak mantentzeko kontratazioa egitea, beti ere, zerbitzuak eskaintzerakoan bertako produktuak erabiliz. Halaber esleipendunaren esku jarriko da Trinketearen kanpoaldean dagoen guneko terraza ere.

2. ART.- KONTRATUAREN IZAERA

Agiri honen xede den kontratua pribatua da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko legeak 9.artikuluak ezartzen duenaren arabera.

Kontratu hau pribatua da. Baldintza-agiri honetan ezarritakoaren arabera prestatu eta esleituko da, eta, bertan aurreikusten ez denerako, honako hauek aplikatuko dira: Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea; Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen Erregelamendu Orokorra, abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretuaren bidez onartua.

Ondorioei eta amaierari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak arautuko dute.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du kontratu honen prestaketari eta esleipenari buruz sortzen diren auziak aztertzeko eskumena.

9/2017 LEGEA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKOA *Bigarren xedapen gehigarria*: "... 1. Toki-entitateetako **alkateen eta lehendakarien eskumena** izango dira, kontratazio organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere. ..."

Era horretako kontratuak inola ere ez du esan nahi lan-harremanik dagoenik Irurako Udalaren eta kontratistaren artean; beraz, inola ere ez dira aplikatzekoak izango lan-arloko zuzenbidearen xedapenak.

Emakida lehia-prozeduraren bidez esleituko da. Prozedura horretan, interesdunek eskaintza bat aurkeztu ahal izango dute, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikulua araberera.

Kontratua esleitzeko, baldintza-agiri honen hamabostgarren klausulan ezarritako esleipen-irizpideak erabiliko dira.

3. ART.- ESKUDUN JURISDIKZIOA

Ondorioei eta amaierari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak arautuko dute.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du kontratu honen prestaketari eta esleipenari buruz sortzen diren auziak aztertze eskumena.

Jurisdikzio zibilak izango du alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena.

4. ART.- HAUTAKETA ETA ESLEIPEN PROZEDURA

Emakida lehia-prozeduraren bidez esleituko da. Prozedura horretan, interesdunek eskaintza bat aurkeztu ahal izango dute, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikulua araberera.

Kontratua esleitzeko, baldintza-agiri honen hamahirugarren klausulan ezarritako esleipen-irizpideak erabiliko dira. Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, Plegu honetako eta kontratuaren xedeari zuzenean dagozkion irizpideak hartuko dira kontuan.

5. ART.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Behin behineko adjudikazioa egiten denetik URTE BATEKO iraupena izango du, urtero luzatu ahal izango delarik BOST urteko mugarekin, edozein alde 3 hilabete aurretik ez badio besteari kontratua bertan behera uzteko bere asmoa jakinarazten.

6. ART.- KANONA

Esleipendunak kanon bezala, hilabeteko BERROGEITA HAMAR EURO (50 €) kanona izango du + %21eko BEZ. Kanonaren ordainketa hilabete bakoitzeko lehenbiziko 10 egunetan egin beharko da.

7. ART.- BEHIN BEHINEKO BERMEA

Parte hartzaileek ez dute behin behineko bermerik aurkeztu beharko.

8. ART.- KONTRATUA BETETZEA

Kontratua gauzatzeak dakartzan arriskuak kontratistaren kontura izango dira.

Halaber, Kontratuen Legea eta gainontzeko legedi aplikagarria bete beharko da (laborala, fiskala ...)

9. ART.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunak ondorengo betebeharrak izango ditu:

9.1.- Jende aurrean lana egingo duen pertsonalaren aldetik euskararen ezagutza eta erabilera izatea ezinbestekoa da.

9.2.- Hondakinak. Zaborra sailkatzea derrigorrezkoa izango da (papera eta kartoia, ontzi arinak, beira, organikoa, olioia, ...).

9.3.-Taberna (bertako gela guztiak), terraza eta lehenengo solairu osoa garbitzea. Taberna barruko dependentziak garbitzea: lurzorua eskobatzea eta garbitzea, egunean behin gutxienez. Bestalde, sukaldea eta barra barruko aldea garbi mantendu beharko dira, baita egunero erabili ohi diren gainontzeko tresnak ere (mahaiak, sukaldeko tresnak, etxetresna elektrikoak eta antzekoak, kristalak eta ontziteria).

9.4.-Kristalak garbitzea: barrutik eta kanpotik garbitu beharko dira taberna-barruti osoan dauden kristal guztiak.

9.5.-Terraza garbitzea: zaborrak jasotzea, terraza osoa eskobatzea, zabor- poltsak jasotzea eta botatzea.

9.6.-Komunak garbitzea: egunero.

9.7.-Herriko marka erabiltzea oharretan (Ametsa trinketea adibidez).

9.8.-Komunikaziorako euskarrietan (kartelak, sare sozialak,...) euskara erabiliko da.

9.9.-Udalaren informazioa eskuragarri egon beharko du.

9.10.-Bertako produktuak erabiltzea lehenetsiko da eskaintza gastronomikoan.

-Esleipendunak formazio saioetan parte hartzeko konpromisoa izan behar du, finantzazioa Udalaren kontura joango delarik.

-Egutegia eta ordutegia udalarekin adostu eta errespetatu beharko dira.

-Txanpon, joku edo apustu makinak jartzea debekatuta egongo da.

-Establezimendu publikoetarako indarrean dagoen elikagaiei buruzko osasun arauak bete beharko ditu.

-Trinketeko ontzien mantenu eta ordezkatzeko esleipendunaren kontura izango dira.

-Altzari eta gailuei dagokien mantenua esleipendunaren kontura izango da. Hauen ordezkatzeko Irurako Udalaren ardura izango da beti ere esleipendunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bada.

- Irekiera ordutegia:
 - 10:30tatik 21:00tara (astelehenetik ostegunera).
 - Instalazioak 22:00etan itxi beharko dituzte (21:00-22:00 jaso eta garbitzeko)
 - 10:30tatik 00:00etara (ostirala, asteburu eta jai egunetan).
 - Festak edo egun bereziak direnean irekita egoteko beharra.
 - Debekatuta egongo da asteburu, jai edo jai bezperatan ixtea.
 - Asteko atseden eguna: Asteartean edo asteazkenean
 - Atseden eguna egun berezia denean, asteko beste egun batez ordezkatu ahal izango da.

-Oporrak: Hilabete osoa itxita edukitzeko aukera (uztaila edo abuztua). Irurako Ostatu eta udalarekin adostu beharko da.

-Urtean zehar beste astebete ixteko aukera: Udalarekin adostu beharko da noiz itxi.

- "Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ahoz zein idatziz, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkartza orekatua, kultur aniztasuna zein bestelako aniztasunak islatzeko, baterako erantzunkizuna eta genero rolen eta identitateen aniztasuna.

-Trinketeko eta frontoiko erabiltzaileei tasa kobratzea.

-Trinketea erabiltzeko orduen erreserba zaintzea eta antolatzea: Gaur egun egiten da, egutegi bat eginez.

-Lehenengo solairuko gainontzeko instalazioen erabilera zaintzea (txiki park inguru guztia)

-Instalazioen irekiera eta itxiera zaintzea.

-Hornidura zerbitzuak (ura, gasa, elektrizita...ea,...) behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea.

-Horniduren ordainketa: Gaur egun, eraikin osoaren elektrizitate kostuaren %25 ordaintzea dagokie. Kontagailu propioa jartzeko aukera aztertuko da.

-Ura eta gasan kontadoreak dituzte.

-Ezingo da obrarik egin Udalaren baimenik gabe.

-Urtean behin, zerbitzuaren jarraipena egiteko elkartzea udalarekin.

-Zerbitzua azpikontratatzeko debekua.

-Erantzukizun zibileko aseguru: 600.000 eurokoa

10.- ART.- KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Kontratuak irauten duen bitartean, esleipendunak obligazioa izango du zergen, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen alorretan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeko; Administrazioak ez du erantzukizunik izango horiek betetzen ez badira.

Edozein arrazoi edo harremanekin, etengabe edo aldi baterako, esleipendunarekin kolaboratzen duten pertsonak esleipendunarentzako soilik lan egingo dute, eta, beraz, ez dute inolako harremanik izango Irurako Udalarekin.

Irurako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari galdagarria zaion araudi osoa betetzen duela egiaztatzeko justifikazioa.

11. ART. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZERAKOAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN GAINEKOA

Kontratista izango da entzule kontratua betetzeko beharrezkoak diren operazioen ondorioz eragindako kalte-galeren aurrean, Sektore Publikoko Kontratuen Legean 4.artikuluak xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, Irurako Udalak ez du batere erantzukizunik izango erakunde esleipendunaren ordezkarien, edozein titulugatik esleipendunarekin kolaboratzen duten pertsonen edo harentzako lana egiten dutenen ekintza edo omisioengatik.

12. ART.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatzeko eskubidea dauka, beti ere legearen mugen barruan eta legez emandako eskakizunak eta ondorioak beteta.

13. ART.- EMAKIDARI AMAIERA EMATEA

Emakida arrazoi hauengatik amaituko da:

- a) Erabiltzaile edo emakidadun indibidualaren heriotza edo ezgaitasuna, edo nortasun juridikoa iraungitzea.
- b) Erabiltzailearen edo emakidadunaren nortasun juridikoa eskualdatu edo aldatzen denean, bat-egite, xurgatze edo zatiketa bidez.
- c) Epea amaitzeagatik iraungitzea.
- d) Emakida erreskatatzea, kalte-ordaina eman ondoren, edo baimena alde bakarretik errebokatzea.
- e) Elkarren arteko adostasuna.
- f) Kanona ez ordaintzea edo emakidaren titularraren beste edozein betebeharrari ez betetzea, emakida edo baimena eman zuen organoak hala adierazita.
- g) Ondasuna desagertzea edo aprobetxamendua agortzea.
- h) Ondasuna desafektatzea; kasu horretan, likidatu egingo da.
- i) Baldintza orokorretan edo berezietan aurreikusitako beste edozein arrazoi.

Kontratatzen erruz suntsiarazte denean kontratua, behin betiko bermea bahituko da; gainera, kontratistak kalte-ordaina ordainduko dio Administrazioari sortutako kalte-galerengatik, bermeaz gaindiko kopuruan.

14. ART.- HAUTATZEKO ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

Emakida lehia-prozeduraren bidez esleituko da. Prozedura horretan, interesdunek eskaintza bat aurkeztu ahal izango dute, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.1 artikulua arabera.

Kontratua esleitzeko, baldintza-agiri honen hamabostgarren klausulan ezarritako esleipen-irizpideak erabiliko dira.

15. ART.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proposamenak Kontratazio Mahaiak, ondoren adierazten diren irizpide objektiboak aplikatuz baloratuko ditu.

Udalak edozein momentutan eska dezake betetzen direla egiaztatzea indarrean dagoen legediak adierazitako agiriak aurkeztuz eta beranduenera ere esleipenduna suertatzen denak kontratua sinatzerako aurkeztu beharko ditu.

Hauek dira esleitzeko erabiliko diren irizpideak eta puntuak:

Zerbitzua hobetzeko eskeini daitezkeen hobekuntzak: ordutegia zabaltzea, janaria etxera eramateko zerbitzua, kultur emanaldiak antolatzea...	Gehienez, 6 Puntu
Hostalaritzan esperientzia edo/eta ikasketak	Gehienez, 6 Puntu
Zerbitzua nolakoa izango denaren memoria	Gehienez, 6 puntu
Elkarrizketa Pertsonala. <i>*Aurkeztutako dokumentazioa alderatu eta baloratuko da.</i>	Gehienez, 20 Puntu
GUZTIRA	38 Puntu gehienez

Esleipenduna izateko gutxienez 25 puntu lortu beharko dira irizpide hauetan.
Elkarrizketan gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira.

16. ART.- KONTRATATZEKO AHALMENA

Proposamenak aurkez ditzakete jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko

debekurik ez duten, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dauden eta beren kaudimen ekonomiko eta, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten pertsona naturalek edo juridikoez. Aitortu beharko da ahalmen hauek betetzen direla eta Udalak edozein momentutan eska dezake betetzen direla egiaztatzea indarrean dagoen legediak adierazitako agiriak aurkeztuz.

Halaber, ez dute Nazio Batuen Erakundearen 183. batzar orokorrak onartu eta aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoa urratzen duen eragiketarik egiten, ez eta horiek arautzen dituzten printzipio orokorrak ere: Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Sistema Unibertsala, Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Eskualde Sistemak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa.

17. ART.- PUBLIZITATE ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Gardentasuna bermatze aldera kontratazio honen espedientea eta berari lotutako dokumentazio teknikoa aztertzeko aukera egongo da Irurako Udalaren bulegoetan asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.

Proposamenak leku eta ordutegi berean eta www.irura.eus webgunean (telematikoki) aurkeztu ahal izango dira udal-bulegoan goran aipatutako egun eta ordutegian, aipatutako iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO epearen barruan.

Lizitatuzaileek aurkeztu behar dituzte; horietako bakoitzean jarri beharko du honako idazkuna:

Gutun-azalean ondorengo idazkuna jarri behar da IRURAKO TRINKETEAN TABERNA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO PROPOSAMENA, baita pertsona edo enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaerarekin aurkeztu den; gutun-azala sinatuta egon behar du.

Eta ondorengo agiriak jaso behar ditu:

- a) Lizitatuzailearen Nortasun Agiri Nazionala, bere izenean jarduten badu. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa jarduten badu, notario-ahalordea.
- b) Lizitatuzailea pertsona juridikoa denean, eraketa edo aldaketa-eskritura eta identifikazio fiskaleko agiria.
- c) I. eranskinetako betekizun eta konpromiso agiria beteta eta sinatuta (Agiri honen 16. klausulan adierazitako AHALMENAK betetzen dituela egiaztatuz eta konpromezua hartuz Udalak eskatutako balio ziurtagiriak eta agiriak aurkeztuko dituela).
- d) JEZen (Jarduera ekonomikoen gaineko zerga) altan dagoelaren agiria (kontratu hau

sinatzeko behar de epigrafean) eta ez badago altan, konpromezua esleipena jakinarazi eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan formalizatuko duela bere alta.

- e) Prozedura honetako harremanetarako pertsona, helbide elektronikoa eta telefonoa.
- f) Eranskina beteta eta sinatuta.
- g) Lan Memoria, gutxienez II eranskina edota 15. klausulan adierazitako esleitzeko irizpideak garatuz eta hala bada beste proposamen batzuk azalduz.

18. ART.- KONTRATAZIO MAHAIA

Ondoren adierazten den bezala osatuko da Kontratazio Mahaia:

LEHENDAKARIA: Irurako Udaleko alkatea edo berak izendatutako ordezkoa.

MAHAIKIDEAK:

- Irurako Udaleko 2 zinegotzi.
- Mahaikide eta Idazkari funtziotan: Udaleko Idazkaria.

Mahaia balio osoz eratuta geratuko da Lehendakari, beste bi ordezkari eta Idazkaria bertan baldin badaude. Berdinketa kasuetan Lehendakariaren kalitate botoa erabiliko da.

19. ART.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

- Emakida epemuga baino lehen ondoriorik gabe uztea, interes publikoko gerora sortutako inguruabarrek hala justifikatzen badute, sortzen dituzten kalteak ordainduz, edo, mugaegunik gabe, halakorik ez badago.
- Emakidaren xede diren ondasunak, instalazioak eta eraikuntzak edozein unetan ikuskatzea.

20. ART.- AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Behin proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, garaiz eta behar bezala jasotako dokumentazioa kalifikatzen hasiko da Mahaia eta, akats materialik aurkituko balu, hiru egun balioduneko epea emango lioke lizitatzailari akatsok zuzentzeko.

21. ART.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Emakida administrazio-agirian formalizatu beharko da, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93.2 artikulua araberera.

Kontratazio-organoak honako errekerimendua egingo dio eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari: errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik hasita bost egun baliodunen epearen barruan, aurkez dezala zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea justifikatzen duen dokumentazioa.

Jakinarazpena jaso eta ondorengo bost egunetan esleipenean aurkeztu direnek beharrezko informazio guztia eska diezaioke Udal Organoari bidezko ikusten duten errekurtoa jarri ahal dezaten.

Jakinarazpenean esleipena formalizatzeko epea edo kontratua sinatzeko eguna adieraziko da.

22. ART.- BEHIN BETIKO BERMEA

Esleipendunak MILA ETA BOSTEHUN EURO (1.500 €)-ko bermea jarri beharko du.

Berme hori Irurako Udalak zehaztutako kontu korrontean sarrera eginez ordainduko da.

Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, kontratuaren epea igaro eta kontratua behar bezala betetzen den arte.

Berme horren bitartez erantzungo zaie ekainare 13ko 1372/1986, Errege Dekretuko 90.artikuluari jasotako kontzeptuei.

23. ART.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Esleipenaren jakinarazpena egiten denetik hamabost egun balioduneko epearen barruan formalizatuko da kontratua administrazio-agirian; agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ezingo balitz kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu, Administrazioak erabaki lezake kontratua bertan behera uztea eta eraturako bermea bahitzea.

24. ART.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

24.1.- Irurako Udalak eta esleipendunak beren gain hartu beharrekoak dira: kontratuaren xedeak, Agiri honen, eta indarrean dauden xedapen osagarriak.

24.2.- Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga. Esleipenduna ez badago Irurako Udalean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda, esleipena jakinarazi eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan formalizatu beharko du bere alta.

24.3.- Zerga-betebeharrak. Zerbitzua ematearen ondorioz galdagarriak zaizkion zerga-betebehar guztiak bete beharko ditu esleipendunak.

24.4.- Gizarte Segurantzaren. Esleipendunak langile autonomo gisa alta eman beharko du Gizarte Segurantzaren instalazioak ireki aurretik; horrela, Udalak ez du izango esleipen

honetatik erator daitekeen batere erantzukizunik.

Zorrotz bete beharko du Gizarte Segurantzaren lan alorrean indarrean dagoen araudia, eta lan-istripuen kontingentziak eta gaixotasun profesionalak estali beharko ditu, dagokion mutualitatearen bitartez.

- 24.5.- Erantzukizun zibileko asegura. Esleipendunak erantzukizun zibileko aseguruaren poliza aurkeztu behar du egoki irizten dion Aseguru Konpainiarekin sinatutakoa, 600.000 €-ko erantzukizun zibila duena, bai eta kontzeptu horregatik ordaindutako primen ordainagirien kopiak ere. Kopia horiek kontratua sinatzean eta urte bakoitzaren hasieran aurkeztu beharko dira. Irurako Udalak, jabe den aldetik, lokala, instalazioak eta altzariak aseguratu ditu egokiak diren kopuruetan.
- 24.6.- Azpikontratatzeko debekua. Debekatuta dago edozein azpi-kontratazio egitea edo esleipenduna ordeztekoa, baldin eta Kontratazio-organoak ez badu horretarako berariazko baimenik ematen.
- 24.7.-Oinarriak eta kontratua egikaritzea. Kontratuaren xede diren prestazioak egikaritutako dira Agiri honetan jasotako klausulak beteta, eta Kontratazio- organoak eman ditzakeen jarraibideen arabera.
- 24.8.-Arriskuak. Kontratuaren xede diren prestazioen arriskuak esleipendunaren kontura izango dira, eta ez du eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko galerengatik, natxurengatik edo kalteengatik.
- 24.9.- Eskritura publikoa. Esleipendunak eskatuko balu kontratua eskritura publikoan formalizatzea, bere kontura izango dira horren ondoriozko gastuak.
- 24.10.- Langileak kontratatzea. Halaber, esleipendunaren ardura izango da bere eginkizunetan laguntzeko egoki irizten dizkion langileak kontratatzea, bai eta haiei ordainsaria ordaintzea, Gizarte Segurantzarako kotizazioa zein langile horien lanaren ondorioz sortzen diren era guztietako gastuei, zergei eta betebeharrei aurre egitea eta gaur egun dauden edo etorkizunean sor daitezkeen zerga, tasa eta arielak ordaintzea ere. Behar bezala egiaztatu beharko du Udalaren aurrean alderdi horiek guztiak betetzen dituela, eta, zehazki, kontratatzen dituen langileen Gizarte Segurantzarako kotizazioaren eskakizuna betetzen duela.
- 24.11.- Establezimenduko hornidura gastu guztiak esleipendunak ordainduko ditu; argindarra, telefonoa, ura, zaborrak...
- 24.12.- Segurtasun Alarma: Udalaren ardura izango da instalakuntza eta mantenua; eta Esleipendunaren ardura izango da bere aktibatuta mantentzea.
- 24.13.- Halaber Esleipendunak ordaindu beharko ditu eraikinaren mantentze-lanen, dagoen ekipamenduaren mantentze-lanen, konpontze-lanen eta/edo ordezteen ondoriozko gastu arruntak zein eraikinak dituen ondasun suntsikorrenak. Eraikinaren mantentzari eragiten dioten kasu berezietan (aldizkakoak ez direnean), aztertu egingo da gastu horiei aurre egiteko Udalak bere ekarpena egiteko aukera.

24.14.- Esleipendunak ezingo du obrarik egin Irurako Udalaren baimen idatzirik gabe.

25. ART.- ONDASUNAK ETA INSTALAZIOAK KONTRATISTAREN ESKU JARTZEA

Kontratua formalizatu ondorengo hamabost egun naturalen epearen barruan jarriko ditu Udalak kontratistaren esku zerbitzuari atxikitako instalazioak eta elementuak. Agiri batean inbentarioa egingo da eta emate horri dagokion akta jasoko da, eta esleipendunak eta kontratuaren arduradunak sinatu beharko dute. Ondasun horiek Udalaren eskura pasatuko dira kontratua amaitzen denean, kontratua sinatzerakoan utzitako moduan eta kopuruan. Horrela ez balira itzultzen fidantza erabiliko da, txukunketak, konponketak edota birjarpenak egiteko. Nahikoa ez balitz erreklamazioa dagokion bidetik gauzatuko da.

Halaber, esleipendunak ustiapenaren esku jartzen dituen ondasunen entregaren akta ere jasoko da; ondasun horiek Udalaren jabetzakoak izatera ez dira pasako eta pasatuko balira esleipendunak hala nahi duelako, indemnizazio edo ordainik gabe pasako dira.

26. ART.- ZEHAPENAK ESLEIPENDUNARI

Kontratuan xedatutakoaren urraketak arintzat, larritzat eta oso larritzat sailka daitezke, zerbitzuak gauzatzekoan esleipendunak egiten dituen arau-hausteen ondorioetarako.

A) Oso larriak:

- Bi ez-betetze larri eginez gero.
- Zerbitzua ez ematea edo ezarritako ordutegia ez betetzea hilabete bereko bost egunetan zehar (jarraian edo ez) edo zazpi egunetan hiru hilabeteko aldiaren barruan, baldin eta horretarako justifikaziorik ez badago eta Udalaren baimenik ez badauka.
- Kontratuaren xede diren ondasunen gaineko kalteak eragitea, baldin eta kontratistak horretarako intenzionalitatea izan badu eta zabarkeriaz jokatu badu.
- Zerbitzuaren erabiltzaileei eraso egitea edo haiekiko errespetua larriki galtzea.
- Zerbitzuarekiko zabarkeria larria.

B) Larriak:

- Esleipena egiteko erabakigarriak izan diren konpromisoak ez betetzea.
- Inolako justifikaziorik gabe aldatzea klausulen agiri honetan zehaztutako zerbitzuak.
- Instalazioei baimendu gabeko erabilerak ematea.

- Baimendu gabeko obrak edo aldaketak egitea.
- Kontratutako zerbitzua, osorik edo zati batean, lagatzea, azpi-errentan ematea edo eskualdatzea, edozein modu edo tituluren baitan.
- Kontratuko funtsezko betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein arau- hauste.
- Eraikinaren erabilerak aldatzeari edo hobetzeari buruzko Udalaren aginduak ez betetzea, Administrazio jarduleak beharrezkotzat jotzen dituenean.
- Agiri honetan definitutako edozein zerbitzu ematean aldaketak egitea justifikatutako arrazoirik gabe.
- Zerbitzua ustiatzen hasteko agiri honetan ezarritako epea ez betetzea.
- Langileekiko lan edo gizarte alorreko betebeharrak ez betetzea.
- Urtebeteko aldiaren barruan lau ez-betetze arin egitea.
- Zerbitzua ez ematea edo ezarritako ordutegia ez betetzea hilabete bereko bi egunetan zehar (jarraian edo ez) edo lau egunetan hiru hilabeteko aldiaren barruan, baldin eta horretarako justifikaziorik ez badago eta Udalaren baimenik ez badauka.
- Udalak eskatutako zerbitzuei eta kolaboratzeari uko egitea, eta dagokion lehentasunik ez ematea.

C) Arinak:

- Ez-betetze arintzat joko dira agiri honetan ezarritako betebeharren eta aplikagarria den gainerako araudian larritzat jotzen ez diren gainerako ez-betetze guztiak.

Udalak baloratuko du aurreko paragrafoetan jasotzen ez den beste edozein faltaren larritasuna.

Zehapenak:

- Arau-hauste arinetan, beti, ohartarazpena egingo da eta 150 € arteko isuna ere jarri ahal izango da.
- Arau-hauste larrietan 150 €-tik 601 €-ra arteko isuna jarri ahal izango da.
- Arau-hauste oso larrietan 601 €-tik 1.503 €-ra arteko isuna jarriko da eta kontratua amaitutzat ematea ere gertatu ahal izango da.

Esleipendunak zerbitzu publikoa zuzen ematea arriskuan jarriko lukeen arau-hauste larria egingo balu, Udalak ustiapenaren bahiketa agindu ahal izango du.

Hiru ohartarazpen urte betean pilatzeak kontratua amaitutzat ematea ekarri ahal izango du. Era berean, bi arau-hauste larri edo bat oso larria egiteak kontratua amaitutzat ematea ekarriko du.

Arau-hauste larri edo oso larriak behin eta berriro egiteak kontratua amaitutzat ematea ekarriko du.

Edonola ere, aipatu diren egoera horietan ez da kalte-ordainik jasoko Irurako Udalarengandik.

Prozedura

Zigorrak jartzeko, dagokion aurkaritza espedientea abiarazi beharko da, eta aukera emango zaio interesdunari.

Alkateak izango du zigorrak jartzeko ahalmena. Dena den Udalbatzari delega diezaioke erabakia.

Gauza bat da zigorra jartzea, eta beste bat zigorra eragin duten gertaerek kontratuan izan ditzaketen ondorioak eta emakidunak kalte-galerak ordaintzeko izan dezakeen betebeharra.

Arau hauste larriak edo oso larriak behin eta berriz egiteak kontratua suntsiaraziko du, eta ezgaitzat hartuko da emakiduna.

Edonola ere, aipatu diren egoera horietan ez da kalte-ordainik jasoko Irurako Udalarengandik.

27. ART.- ZERBITZUA, ONDASUNAK, OBRAK ETA INSTALAZIOAK UDALAREN ESKUETARA ITZULTZEA

Kontratua amaitzen denean, Irurako Udalari itzuliko zaizkio -jabari osoan-, kargarik eta grabamenik gabe, zerbitzuari atxikitako eta inbentarioan jasotako Udalaren jabetzako obra, instalazio eta ondasun guztiak; horiek guztiak funtzionamendurako eta kontserbazioko egoera onean itzuli behar dira. Itzulera hori islatuta geratuko da jasotzeko akta formalean; akta hori izenpetu behar dute esleipendunak eta kontratuaren arduraduna den Alkateak, zerbitzua amaitu ondorengo hamabost egun naturaleko epearen barruan, eta Udal Batzarrari akta horren berri eman beharko zaio.

Betebehar hori betetzen dela bermatzeko, kontratua amaitu baino sei hilabete lehenago, Udalak izendatutako kontratuaren arduradunak ondasunen eta instalazioen kontserbazio-eta mantentze-egoera aztertuko du eta kontratistari jakinaraziko dio ze konponketa egin behar dituen aurreikusitako baldintzetan mantentzeko, Udalari baldintza onetan itzultzeko helburuz.

Jarduketaren bat egin beharra dagoela ebatzi eta kontratistak ez badu hori emandako epearen barruan betetzen, Udalak berak egikaritzeko du beharrezkoa dena kontratuaren

behin betiko bermearen kontura; horrez gain, kontratistaren ez betetze larriagatiko ebazpena ere eman liteke.

ERANSKINA

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
N.A.N.:	<i>(honekin batera doa kopia)</i>
Norbere izenean, edo zein enpresaren izenean:	
Enpresaren IFK:	

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen duela **IRURAKO TRINKETEA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA EDO PLEGUA-**

Eta era berean, ZINPEAN AITORTZEN DUT:

Pleguko 16. puntuan eskatzen diren kontratatze ahalmenak betetzen ditudala, hau da, jarduteko gaitasun osoa dudala, kontratatze debekurik ez dudala, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean nagoela eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dudala esleipen honetan aurkezteko.

Ez dute Nazio Batuen Erakundearen 183. batzar orokorrak onartu eta aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoa urratzen duen eragiketarik egiten, ez eta horiek arautzen dituzten printzipio orokorrak ere: Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Sistema Unibertsala, Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Eskualde Sistemak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa.

Halaber aitortzen dut ahalmen hauek betetzen direla egiaztatze indarrean dagoen legediak adierazitako agiriak aurkezteko konpromezua hartzen dudala jakiniz Udalak edozein momentutan eska diezadakela eta beranduenera ere esleipenduna banintz kontratua sinatzerako aurkeztuko ditudala.

Amaitzeko hitza ematen du kontratatua izaten banaiz, bereziki 10. puntuan agertzen diren betebeharrak, Pleguko gainontzekoak, neronek Memorian agertutakoak (Udalak onartuta) eta indarrean dagoen legedian agertzen diren guztiak betetzeko konpromezua hartzen dudala kontratuak dirauen denbora guztian.

(Data eta eskaintza-egilearen sinadura)

II.ERANSKINA

NEGOZIO PLANA

BIDERAGARRITASUN AZTERKETA

1.- TALDE SUSTATZAILEA

- **Datu pertsonalak:**
 - Izena:
 - Jaioterra:
 - Helbidea:
 - Telefonoa:
 - Posta elektronikoa:
 - NAN:
 - Jaiotze-data:
 - Lan egoera:
 - Ikasketak:
 -
 -
 -
- **Esperientzia profesionala:**
 -
 -
 -
 -

2.- JARDUERAREN AZTERKETA.

GIZA BALIABIDEAK:

- Beharrezko pertsona kopurua:
- Prestakuntza/ikasketak:

3.- MERKATU AZTERKETA

BEZEROAK:

- Bezero potentzialak:
 -
 -
 -

LEIHAKIDEAK:

HORNITZAILEAK:

4.- FINANTZA-EKONOMIKO ALORRAREN AZTERKETA (AURREIKUSPENA)

INBERTSIOAK:

- Lokala: kanona: 50€/hileko + %21 BEZa
- Konstituzio gastuak: 1.500€ (udalaren bermea....)
-
-
- **HASIERAKO INBERTSIO TOTALA _____€ inguru**

FINANTZIAZIOA:

- Baliabide propioak: Sustatzaileak jarri dezakeen kapitala _____€-koa da.
- Kanpoko baliabideak:

USTIAPENAREN AZTERKETA: Hilabetero jardueran zehar sortutako gastuak:

-
-
-
-
-
-

- **GASTUAK GUZTIRA:** _____ €

SARRERAK: Aurreikusitako diru sarrerak

-
-
-
-
-
-

- **DIRU SARRERAK GUZTIRA:** _____ €